



PRENTSA OHARRA

DBEBk Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola, Iñaki Vicuña , Daniel Carballo ETA Diario Vasco saritu ditu

Era berean, accesit bana eman zaie Sofía Lucas abokatuari eta Pribatua elkarteari.

- Gasteizko alkate Gorka Urtaranek eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendari Margarita Uriak zuzendu dute ekitaldia.
- Sarituak nabarmendu dira haien ibilbide profesionalagatik, ikerkuntza eta zabalkunde lanengatik, eta datuak babesteko jardunbide onengatik.

Gasteiz. 2018-02-01. Datuak Babesteko Euskal Bulegoak gaur egin du, Gasteizko Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoan (ARTIUM), Datuak Babesteko Sarien banaketa ekitaldia. DBEBk urtero ematen dizkie sariak ibilbide profesionalagatik, ikerkuntza lanengatik, komunikazioa eta zabalkundeagatik eta datuak babesteko jardunbide onengatik urtean zehar nabarmendu diren pertsoneri, enpresei eta erakundeei.

Gasteizko alkate Gorka Urtaranek eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendari Margarita Uriak ekitaldia zuzendu eta sariak banatu dituzte.

V. edizioko sariak honela banatu dira: "Ibilbide profesionalagatik" Iñaki Vicuñaari eman zaio, DBEBren lehenengo zuzendaria izan zenean egindako lanagatik Bulegoa abian jartzen; Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Gardentasuneko

Lan Taldeko kide izateagatik eta jurisprudentiaren zabalkundean egindako anonimizazio lan garrantzitsuagatik; Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Datuak Babesteko Batzordeko kidea izateagatik, eta datu babesaren arloan izan dituen erakunde kargu ugariengatik.

“Datu Babesaren Ikerkuntza Arloan” saritua da Daniel López Carballo, honako lanagatik: “Datu babes eraginkorraren bidean Iberoamerikan. Datuak Babesteko Iberoamerikako Behatokiaren ekimenaren adierazpenak”.

Kategoria honetan accesit bate ere eman diote Sofía Lucas Areizagari, honako lanagatik: “PNR Zuzentarauak planteatzen dituen erronka juridiko nagusiak”.

“Datu Babesaren Komunikazio eta Zabalkundearen Arloko Saria” El Diario Vasconi eman diote, herritarrak kontzientziazten egindako lanagatik, teknologia berriak eta pribatutasunaren babesa behar bezala erabil ditzaten. Categoria honetan ere accesita eman da, eta Pribatua-Pribatutasun eta Informazio Segurtasuneko Euskal Elkarteak jaso du, etengabe egindako lanagatik pribatutasunaren eta informazioaren segurtasunaren zabalkundearen arloan.

Azkenik, datu babesaren arloko “Jardunbide Onenei” saria eman diote Vitoria-Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolari, datuen babesaren eta segurtasunaren arloan egiten dituen jardunaldien kalitateagatik.

DBEBren zuzendari Margarita Uriak saritu guztiak zoriondu ditu, lanen kalitateagatik eta egin dituzten ekarpenengatik, erakundeek eta herritarrek gero eta argiago izan dezaten zein garrantzitsua den esparru hau, etengabe garatzen ari den esparrua baita, eta etorkizunerako erronka ugari dakarrena. Erronka berrien artean nabarmendu du Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra. Izan ere, Europako zuzentzari bat da, eta herrialde guztiek nahitaez bete beharrekoa aurtengo maiatzaren 25etik aurrera. Eta azpimarratu du “Erregelamendu berri hau erronka handi bat dela Bulegoarentzat eta Euskadiko erakunde guztientzat, laneko metodologiak egokitu beharko dituztelako Erregelamendura, eta askotan egiturak ere bai. Gainera, herritarren eskubideei berme handiagoa emateko helburua ere badu, batez ere haien datu pertsonalak babestea eta gordetzea dela eta”.

Bestalde, Gorka Urtaranek azpimarratu du herritarrak konturatu behar direla zein garrantzitsua den norbere datu pertsonalak babestea, batez ere gazteak. “Guzti-

guztiok, gutariko bakoitzak baliarazi behar ditugu esparru honetan dauzkagun eskubideak. Datu-babesa herritar guztien eskubidea da, eta txikitatik ikasi behar du baliatzen, are gehiago teknologia berriak erabiliz gero. Jakin behar dugu zernolako arriskuak izan ditzakeen gure informazioak: lapurretak, baimenik gabeko zabalkundea, informazioa aldatzea, galtzea edo ezabatzea; eta guzti horrek ekar ditzakeen ondorioak ere bai; adibidez, sarean dugun ospea kaltetzea, jazarpen psikologikoak edo diskriminazioa jasatea edo identitatea lapurtzea mota guztietako iruzurrak egiteko". Horrez gain, nabarmendu du oso garrantzitsua dela esparru pribatuak eta publikoak, biek tratatzea datu pertsonalak begirunez osoz, eta zorrotz betez indarrena dagoen legedia.